

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2026ko apirilak 10 · 1391 zenbakia

MEMORIA DUEN LEKUA

2MÓ 259€

betaurreko progresiboak
batzuk eguzkitakoak izan daitezke



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

943 20 05 22
Bidebarrieta, 2.
EIBAR



hitzordua
eskatu



MGEP

MONDRAGON GOI-ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARÍA ARIENDEGARRIETA, 100/1. E.



Nahikari Miguelez

Energia Berriztagarrien Goi-mailako
Teknikariaren zikloko koordinatzailea

Ander Plaza

Mondragon Unibertsitateko Energia
eta Potentzia Elektronikoko masterreko ikaslea

Zertan datza sortu duzun maketa? Nola funtzionatzen du?

ANDER: Energia eta Potentzia Elektronikako Masterra egiten ari naiz Mondragon Unibertsitatean eta, 2025eko irailaz geroztik, maketa hau garatzen ari naiz Master Bukaerako Lan gisa.

Maketa energia berriztagarri ezberdinak kudeatzeko gai den sistema baten modalizazio bat da. Lehen fasean, maketa, iturri berriztagarrietatik datorren energia hartzeko gai da: eolikoa, hidraulikoa eta eguzkiarena. Energia hartu ondoren, tratatu eta batera batzuetan gordetzen du.

Bigarren fasean, maketak hornidura kudeatzen du, eta edozein kargari energia emateko gai da (230V korronte alternoa), ohiko erabilerarako.

Zer erabilera izan ditzake maketa honek energia berriztagarrietako goi-mailako teknikariaren zikloan?

NAHIKARI: Gure hezkuntza eredu ikasleei erronka ezberdinak planteatzean oinarritzen da eta maketa honek erronka guztiz erreala planteatzea ahalbidetzen digu. Erronka bat diziplina anitzeko proiektu bat egitearen antzeko zerbait litzateke, non ikasleek praktikan jartzen duten hainbat modulu edo irakasgaitan ikasitakoa. Maketa hau ziklo honen helburu nagusien laburpen argia da, hau da, energia berriztagarriak kudeatzeko gaitasuna: ekoizpena, garraioa, tratamendua, biltegiratzea eta banaketa.

Zure ustez, zer abantaila ditu erronketan oinarritutako ikaskuntzak?

NAHIKARI: Abantaila nagusia da ikasleak testuinguru teoriko batetik testuinguru praktikoa eta erreala batera igarotzen direla. Horrek nabarmen errazten ditu ikaskuntza-prozesuak, eta kontzeptuak askoz hobeto ulertzeko eta barneratzeko aukera ematen du. Badakigu ikasleek positiboki baloratzen dituztela horrelako esperientziak, benetako arazoak planteatzen zaizkielako eta benetako konponbideak eman behar dizkielako.

Bestalde, ikasleak hobeto prestatuta egongo dira lan munduan sartzen direnean lan profesionalak egiteko. Benetako tresnak ikusi eta erabiliko dituzte, horiekin lan egingo dute eta hobeto ezagutuko dituzte. Goi-mailako ziklo honek ikasleak gaitu beharko lituzke energia berriztagarri desberdinak nola kudeatzen diren ulertzeko. Etorrizuneko profesionalek instalazio horiek muntatzeko, konpontzeko eta mantentze-lanak egiteko gai izan beharko lukete. Eta maketa honek hiru energia-iturri mota desberdinekin lan egiteko aukera ematen digu,

Ikaslea behar bezala prestatuta sar al daiteke lan-munduan?

NAHIKARI: Ziklo honetan, ikasleak, jarduera praktikoak ez ditu ikasgelan bakarrik egingo. Ikasgaien zati bat enpresa batean egiteko aukera ere izango du, lan egingez eta soldata baten truke. MGEPen sendo sinesten dugu DUAL intentsio programan, non ikasleek ikasgelako orduak eta enpresako lanordua uztartzen dituzten. Zikloa egin ondoren, ikasleek ordu asko igaroko dituzte benetako lanak egiten; beraz, gure ustez, lan-mundura sartzeko erabat prestatuta egongo dira.

ATE IREKIAK

Maiatzak 9

11:00etan

**Eman
izena!**

MGEP:
664 298 683



zarelakopara

Zure pausoak indartzen
du euskararen bidea.
Batu zaitetz eta egin dezagun Eibar
euskaldunagoa.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

BAZKIDETZA KUOTAK (URTEKO)

- Umeak (16 urtetik behera): urtean 5€
- Ikasle, langabetu eta jubilatuak: urtean 20€
- Langileak: urtean 50€

*Errenta aitortpenean %30 itzuliko zaizu

Info+: 943200918 / elkartea@etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkartea

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eu



Korrikak Eibarren egin zuen ibilbide osoa ikusi dezakezue gure webgunean eta YouTubeko kanalean dugun bideoan. Gainera, lekuko bakoitzaren momentua bideoan markatu dugu, bilaketa zehatza errazago egin dezazuen.

eta kitto!
euskara elkarteak

ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eu

komunikabideak@etakitto.eu

publizitatea@etakitto.eu

aldizkaria@etakitto.eu

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eu

normalizazioa@etakitto.eu

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte eta Naiara

Eснаоla

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eskutitzak



2026ko martxoaren 26an Eibarren gertatutako etxegabetzearen harira

Pasa den martxoaren 26an, osteguna, Eibarko Bidebarrietan kalean emakume bat eta hiru adin txikiko etxegabetu zituen Ertzaintzak. Honen aurrean, ez zitzaion familiari inolako alternatibarik eskaini.

LAB ETXEBIZITZAtik kezka eta ardura handiz begiratzeko diogu gertatutakoari eta gure babesa eta elkartzasuna adierazi nahi dizkiogu kalean eta bestelako aukerarik gabe utzi duten familiari. Argi daukagu gure herria ez dagoela horrelako egoeretatik salbu eta etxebizitzaren arazoa langileok bizi dugun arazo nagusienetako bat dela. Guk argi daukagu funts putre, banketxe, etxe-agentzia eta etxejabeen espekulazioaren aurka borrokatzen jarraitu nahi dugula, higiezinaren patronalaren abusuari aurre egingo diegula eta ez dugula horrelako egoerarik onartuko, ez Eibarren ez inon.

Horregatik, egoeraz jakitun, 2025eko urtarrilaren 30ean jakinarazi genuen LAB etxebizitzaren eremuan antolatzen hasi zela eta jada, beste eskualde batzuetan bezala, Debaldeko LAB etxebizitza asanblada antolatuta daukagu. Asanblada hau etxebizitza borrokatzeko espazio kolektibo bat da, argi daukagulako etxebizitzaren arazoa ez dela arazo indibidual bat, baizik eta langile klase osoari eragiten dion kontu bat.

Aterabideak kolektiboan izan behar duela sinetsita gaude. Pertsonarik ez dadin egon aterpe duinik gabe. Eta badakigu eskubide guztiak lortu diren modu berean lortu beharko dugula hau ere: elkarrekin antolatuz eta borroka eginez.

Animatu hurrengo asanbladara: apirilak 15, asteazkena, arratsaldeko 17:30ean Eibarko LABeko egoitzan. Zure zain egongo gara!

LAB Etxebizitza Debaldea

Hortik esanak



Euskaltzaleok, pozik bukatu genuen aurtengo Korrika. Itxuraz, bai, bederen. Giro izugarria zegoen Bilboko bazter guztietan. Inoizko Korrika jendetsuena. Gazte asko bildu dituen. Koloretsua eta baikorra. Herri bat martxan irudikatu duena. Komunitate euskalduna egon badagoela adierazten diguna. Euskararen alde herri gogo bizi-bizia azaldu duen kolektibo zabala...

Dena den, ez dirudi guztiok aho zapore berarekin bukatu dugunik. Batzuek ozpinduta hasi zuten, lehen egunean modu ez egokian AEKri leporatuz CCOOk lekukoa ez eramatearen ardura; desegokia zen, ezen, sindikatuaren erabakia izan baitzen euskararen aurka duen jarrera aktiboa berrikusi ordez, Korrikarengandik baztertea. Eta bukatu ondoren, instituzio eta pertsona berek kanpaina lotsagarria abiatu dute herri ekimen masiboa den Korrika alderdien estrategiaren baitan kokatzeko asmoz. Eta ez, ez da zuzena hainbeste herritar motibatze eta ilusionatze gaitasuna duen herri mugimenduari leporatzea egon daitezkeen hutsune guztien ardura. Eta gutxiago, lekukoa nahi duten adina erabili duen alderdiak, biktima papearra hartuaz, herri lanean ari diren militanteen esfortzua mespretxatzea.

TASIO ERKIZIA

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POLTSIKO → Gaztelerazko 'bolsillo'. "Berbia harrua eta poltsikua zimurra".

POLTSIKORAKO. → Diru soltea. "Jai-eguneko jantzi naiz eta poltsikorakua emoirazu".

PONPOLOTE. → Kupula formakoa. "Urrit eta urdin ponpolotiak jarri zittuan alde batera, txingar gaiñian errete jateko".

1954

Aste Santuko prozesioa Ibarkurutzen

Gazteenek ez dute horrelakorik ezagutu, baina gure herrian ere prozesioak egiten ziren Aste Santuan, kapirote eta guzti. Ibarkurutze parean hartutako irudia, gainera, 1954ko apirilaren 14koa, II. Errepublikaren aldarrikapenaren 23. urteurrenean egindakoa da.



Farmaziak

BARIXAKUA 10
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 11
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 12
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)
ASTELEHENA 13
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
MARTITZENA 14
EGUNEZ Zulueta (San Agustín, 5)
EGUAZTENA 15
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
BARIXAKUA 17
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI, 2026an,
Elortza (Juan Gisasola, 18)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Elena Axpe Bengoa**. 59 urte. 2026-03-25.
- **Eduardo Gomez Lopez**. 86 urte. 2026-03-26.
- **Arantza Larrañaga Beiztegi**. 84 urte. 2026-03-26.
- **Jose Angel Molinero Baglietto "Moli"**. 61 urte. 2026-03-29.
- **German Roldan Fernandez**. 82 urte. 2026-03-30.
- **Rakel Odriozola Abadea**. 68 urte. 2026-03-30.
- **Carmen Gil Azpilikueta**. 68 urte. 2026-03-30.
- **Elena Colmenero Barge**. 91 urte. 2026-04-01.
- **Miren Urkiri Txurruka**. 93 urte. 2026-04-01.
- **Juan Alberdi Ugalde "Kaillo"**. 86 urte. 2026-04-02.
- **Jose Domingo Etxaide Zenarruabeitia**. 81 urte. 2026-04-02.
- **Gerardo Escribano Hernandez**. 79 urte. 2026-04-02.
- **Marcos Barrena Ugartetxea**. 66 urte. 2026-04-02.
- **Arrate Aranberri Ulibarri**. 89 urte, 2026-04-08.



Mila metrotik gorako luzera eta batez beste 10 metroko zabalera dituen plataformara hainbat eskailera-tartetatik, eta pasealekuan zehar egongo diren hiru igogailuetatik (oraingoz bakarria dago martxan, tren-geltokian) iritsi ahal izango da. SILBIA HERNANDEZ

Zabaldute Estaziño eta Azitain kaleak lotzen dituen bidegorria

SILBIA HERNANDEZ

Bisitan, Garcia Chuecak iragarri zuen Eibarko eta Azitaingo geltokien arteko estalkia paisaiaren eta ingurumenaren aldetik integratzeko lanen egikaritzea eta zuzendaritza elkarrekin finantzatzeko akordioa lortu dutela ETSk eta Eibarko Udalak. Horrela, ETS arduratuko da 686.531 euroko kostua eta bost hilabeteko egikaritze-epea duten obren lizitazioaz, kontratazioaz, egikaritzeaz, zuzendaritzaz eta finantzaketaz. Eta udal gobernuak bere gain hartuko ditu, besteak beste, paisaia- eta ingurumen-integrazioari dagokionez hartutako irtenbidearen garapen osoa ezarriko duen eraikuntza-proiektua idaztea eta onartzea.

Sailburuaren berbetan, “erakundeen arteko lankidetzan sakontzeak hobekuntza dakar, kasu honetan, Eibarrentzat. Bere zailtasunak izan dituen obra zibila amaituta, orain pasealekua janztea dagokigu. Uste dugu jarduketa horrek kalitatezko hiri barruko lorategi-espazio berria eta hiriko azpiegitura berdea handitzeko aukera emango diela Eibarri eta bertako biztanleei”.

Bestalde, Jon Iraola alkateak nabarmendu duenez, “orain arte trenbidearen trazadurak mugatutako eremua zena pasealeku zabal eta irisgarri bihurtu da. Espazio berri horrek auzoen arteko lotura berreskuratzen du, oinezkoen mugikortasuna hobetzen du, eta

Trenbideak estali eta gero Estaziño eta Azitain artean sortu den bidegorria zabalik dago apirilaren 1az geroztik, baina herritarrentzat zabaldu aurretik, bezperan, amaitu berri den obrara bisita egin zuten Susana Garcia Chueca Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak eta Jon Iraola Eibarko alkateak, Antonio Lopez Euskal Trenbide Sareko (ETS) zuzendari nagusiak lagunduta.

ibilbide atseginaz gozatzeko aukera ematen du”. Aurreratu dutenez, laster jarriko dira jendeak horrenbeste eskatu dituen berdeguneak, “eta pasealekuaren irekiak ingurune zabalagoa eta konektatuagoa eskaintzen du. Proiektu honek erakusten du plangintzarekin, lankidetzaren instituzionalarekin eta etorkizuneko ikuspegiarekin Eibarren bizi eta lan egiten duten pertsona guztien bizi kalitatea hobetzen duten azpiegiturak sor ditzakegula”. Ildo horretan, gogorra ekarri behar da proiektu honen garapena posible izan dela PSE-EE eta EH Bildu udal taldeen artean 2021ean sinatutako hitzarmenari esker, zeinean Eibarko ekialdeko eremua berronertzeko hainbat proiektu jaso zituzten, tartean amaitu berri den trenbide gaine-ko pasealekuarena.

Pasealekua Next Generation EU funtsekin finantzatu da, eta Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren eta Eibarko Udalaren arteko hitzarmenari esker egin ahal izan da.



Gaur abiatuko da 'Debarrena Gourmet' ekimena hirugarrenez

S.H. Zazpi jatetxe, zazpi menu eta zazpi plater. Horixe da "Debarrena Gourmet" ekimen gastronomikoaren aurtengo eskaintza. Hirugarren edizio honetan, apirilaren 10etik 30era bitartean, eskualdeko erreferentziatzeko jatetxeek menu berezi bana eskainiko dute, 65 euroan. Eibarko Baratze Gourmet, Elgoibarko Belaustegi, Debako Hiru Bistro eta Urgain, Mutrikuko

Pikua, Mallabiko Trabakua Behekoa eta Itziarko Salegi jatetxeek hartuko dute parte ekimenean. Era berean, Unai Altuna, Josu Mugerza, Geaxi Urizarri, Nestor Pañuni, Luis Angel Alburquerque, Tasio Fernandez eta Imanol Mugerza sukaldari erreferentziek prestatuko dituzte platerak.

Debarrena Turismoak bultzatutako ekimena da, Debarrenereko

Klub Gastronomikoko sukaldariekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Euskadi Gastronomikaren babesa du. Aurreko edizioetan bezala, sukaldarien talentua nabarmendu eta eskualdeko gastronomia aberatsa erakustea da helburua. "Debarrena Gourmet" menua zazpi platerak osatuko dute: aperitiboa, bi hasierako plater, bi plater nagusi (arraina eta haragia) eta bi postre. Ogia, kafea eta edaria ere barne hartzen ditu. Proposamen guztiak debarrenaturismo.com webgunean daude ikusgai.



**LAMINAZIOZ EGINIKO ZEHAZTASUN
HANDIKO HARIAK
BULOI ETA TORLOJUK
HUSILO ETA AZKOINAK**



Erisono Industrialdea, 3
20600 Eibar
tlf. 943 121 308
943 121 312
www.rlapeyra.com



Debarrena Parkinson elkarteak ate irekien jardunaldia antolatu du

S.H. Bihar (apirilak 11) Parkinsonaren Nazioarteko Eguna gogoratzen dela eta, DEPARCEL Debarrena Parkinson Elkarteak ate irekien jardunaldia egingo du apirilaren 15ean, eguaztenean, 17:00etatik 18:30era, Eibarren duen egoitzan (Ardantza, 1 behea). Elkarteke arduradunen berbetan, “herritarrei elkarteak egiten duen lana ezagutaraztea da ekimen honen helburua, baita instalazioak bisitatzeko eta Parkinsona dutenen zein haien familien alde gara-

tzen diren zerbitzuak eta jarduerak bertatik bertara ezagutzeko aukera eskaintzea ere. Bertaraten direnek elkarteke lantaldearekin egoteko aukera izango dute, haien lan egiteko modua ezagutu eta, giro atsegin batean, mokadu txiki batez gozatzeko”. Interesa duten guztiei bertaratzeko eta topaketa honetan parte hartzeko gonbidaben irekia egin dute elkartetik, beraien lana hobeto ezagutu nahi duen edonor pozik hartuko dutela azpimarratuta.

Kubara bidaltzeko oinarrizko produktuak bilduko dituzte apirillean

S.H. Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS), Ikasle Antolakunde Sozialistak (IAS) eta Euskadi-Kuba elkarteak oinarrizko produktuak bilduko dituzte, Kubara bidaltzeko. Salatu dutenez, AEBen blokeoa dela-eta, “kubatarrek muturreko egoeran” daude. EHKS 93 herritan egingo du bilketa, tartean Eibarren; eta IASK, berriz, ehun hezkuntza zentrotan (tartean Eibarko EHU), apirilaren 13tik 24ra.



Gaur itxiko da Eibarko bi haurreskola berrietarako matrikulazio-epea

S.H. Eibarko Udalak aurreko astean jakinarazi zuenez, zabalik dago bi haurreskola berrietan izena emateko ez-ohiko epea. Interesa duten familiek gaur arte (apirilak 10) izango dute seme-alabak matrikulatzeko aukera, Pegoran. Izapidea bertan egin beharko da, 08:30etik 13:30era, eta aurretiko hitzordua hartzeko aukera egongo da, izapidea errazteko. Udalaren arabera, epe ho-

nen bidez beharrezko informazioa bildu eta baliabideak planifikatu nahi dira, ohiko ikasturtea hasi aurretik. Behin-behineko zerrendak apirilaren 20an argitaratuko dituzte, eta erreklamazioak aurkezteko epea hurrengo egunean zabalduko da. Behin betiko zerrendak, berriz, apirilaren 24an plazaratuko dira. Ikasleak maiatzaren 4an hasiko dira zentro berrietara egokitzen.



Astelehenetik aurrera Arragueta itxita egongo da, kalea konpontzeko lanengatik

S.H. Arragueta kalea berrurbanizatzeko obrak direla-eta, apirilaren 13tik aurrera (astelehena) trafiko-aldaketak egongo direla iragarri du Udalak. Obrek 20 aste-ko iraupena izango dutela aurreikusitu dute. Lanek Arragueta kalea itxia ekarriko dute, eta, ondorioz, ibilgailuak Bittor Sarasketa eta Matsariatik desbideratu beharko dira. Alberto de la Hoz Trafiko eta Mugikortasun zinegotziak jakinarazi duenez, “trailerrak, autobusak eta 8 metro baino gehiagoko luzera duten ibilgailuak ezin izango dira Bittor Sarasketatik sartu, eta Estaziñotik sartu beharko dute herrigunera. Bestalde, Arikitzaneko Zubian noranzkoa aldatuko da (orain arte, kale horrek Ibar-

kurutze eta Bidebarrieta lotzen zituen, jaisteko noranzkoan) eta, apirilaren 13tik aurrera, Bidebarrieta Ibarkurutzerekin lotuko du (igotzeko noranzkoan), eta ezingo dira 10 metro baino gehiagoko ibilgailuak sartu. Hori dela eta, Bilborako autobus geltokietan aldaketak egongo dira”. Horrela, Barrenako geltokia Barrena 21era (Dia supermerkatuaren parera) lekualdatuko da, eta Urkizuko autobus-geltokia Errebalera. Gidariei eta oinezkoei kontu handiz ibiltzea, behin-behineko seinaleak errespetatzea eta, ahal den neurrian, ibilbide alternatiboak erabiltzea gomendatzen zaie, auto-ilarak saihesteko. Bestetik, Udalbus zerbitzuan ez dela aldatetarik izango adierazi dute.



HAZILAN+ programan izena emateko epea zabaldu dute

S.H. Kualifikazioa duten langabe-tuen laneratzeko sustatzeko helburua duen HAZILAN+ programan izena emateko epea zabalik dago. Programa Debarreneko udalek eta Debegesak abiarazi dute, Garapenekin lankidetzan, “kualifikazio maila ertain edo altua izan arren lan-merkatuan sartzeko edo berriro sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko helburuarekin”. Ekimena eskualdeko langabeei zuzenduta dagoen programak ibilbide osoa proposatzen du, orientazio pertsonalizatua, zeharkako zein gaitasun teknikoaren garapena eta enpresetako praktikak uztartuz. Debegesak kudeatuko du, eta informazio guztia zein izena emateko formularioa bere webgunean daude eskuragarri (www.debegesa.eus). Interesdunek apirilaren 30era arte eman ahal izango dute izena.



7 jatetxe - 7 menu

65€

Apirilaren 10etik 30era

Urgain · Salegi · Trabakua · Belaustegi
Hiru Bistro · Baratze · Pikua

Menuak



GOURMET

Isasiko lur-jausia: ahaztu nahi ez den 1956ko lan-istripua

Testua **ANA AIZPURUA RUBIO**

70 urte bete dira Eibarren herritarrak astindu zituen lan-istripu larria gertatu zenetik. Isasi kaleko goialdean izan zen, 29 eta 31 zenbakien artean, lur-jausi batek bertan lanean ari ziren langileak ustekabeen harrapatu zituenean. Gertaera katastrofikoa izan zen: lau langile hil eta beste bi zauritu ziren. José Luis Rodríguez eibartarrak gogora ekarri du 1956ko martxoaren 24an gertatutakoa, ahaztu ez dadin.

Duela 70 urte, 1956ko martxoaren 24an, lan-istripu latz batek astindu zuen Eibar. Isasi kalean, lur-jausi batek lau langile hil eta beste bi zauritu zituen. Denak eraikuntzan ari ziren lanean, eta gehienak Galiziatik etorritako langileak ziren, sasoi hartan herria berreraikitzen lagundu zutenetakoak.

José Luis Rodríguez eibartarrak gertutik bizi izan zuen tragedia hura. 12 urte besterik ez zituen orduan, eta bere aita istriputik bizirik atera zenetako bat izan zen. Gaur, 82 urterekin, gertatutakoa gogoratu eta kontatzeko beharra sentitzen du, ez erreklamatzeko edo salatzeke, baizik eta memoria gal ez dadin.



Herritar ugari bildu ziren San Andres parrokiaren kanpoan hiru hildakoen hilkutxen inguruan. Egun batzuk geroago, laugarren langilea ere hil zen. EIBARKO UDALARTXIBOA



José Luis Rodríguezek 12 urte zituen istripua gertatu zenean. Bere aita bertan zegoen lanean eta bizirik atera zen. ANAIAZPURUA

1950eko hamarkadan, Euskal Herria –eta bereziki Eibar– industrializazio prozesu betean murgilduta zegoen. Gerra Zibilaren ondoren, herria berreraiki behar izan zen: etxebizitzak, tailerrak eta azpiegiturak eraikitzeko premia handia zegoen. Testuinguru horretan, lan-eskuaren beharra izugarria zen. Tokiko biztanleria ez zen nahikoa eskaera horri erantzuteko, eta, ondorioz, Espainiako beste lurralde batzuetatik –batez ere Galiziatik– etorritako langile ugari iritsi ziren. Lanak eskuz egiten ziren, pikotxarekin eta palarekin. Segurtasun neurriak oso eskasak ziren, eta lan baldintzak gogorak. Kanpotik etorritako langileak –gehienak galiziarrek– funtsezkoak izan ziren herria berreraikitzeko.

Istripua Isasi kalean gertatu zen, 29 eta 31 zenbakien artean. Lurra kentzeko lanetan ari ziren, desnibel handiko eremu batean, eraikin bat altxatzeko prestatzen. Une jakin batean, kamioia lurra husteratzen joana zen, eta langile batzuk atsedan hartzen ari ziren. Horri esker,

tragedia ez zen are handiagoa izan, hamabost lagun inguruko taldea baitzegoen lanean.

Halako batean, lur-jausi handia gertatu zen. Hurbilen zeudenak izan ziren kaltetu handienak. Batzuk berehala atera zituzten, José Luisen aita tartean, gerritik behera harrapatuta geratu baitzen. Beste batzuk, ordea, lur azpian geratu ziren, eta gutxienez ordubete behar izan zuten haietako bat ateratzeko. Azkenean, hiru langile berehala hil ziren, eta laugarrena egun batzuk geroago zendu zen, ospitalean.

Istorio hau kontatzeko beharra

José Luisen aitak sei hilabete eman zituen baja medikoan. “Arinak” bezala sailkatu zituzten bere zauriak, baina semearen ustez halako lesio batek ez du arintasunik. Nolanahi ere, bizirik ateratzea zorte handia izan zen. Hala ere, gertatutakoak arrasto sakona utzi zion bizitza osoan.

Hildakoak oso gazteak ziren gehienak, eta hiru ezkongabeak. Laugarrenak familia zuen, baina

Hildakoak Galiziatik Eibarrera lanera etorritako langileak izan ziren

Kanpotik etorritako langileak funtsezkoak izan ziren Eibar berreraikitzeko



Herritarrek Untzagan eta Calbeton kalean, hildakoei azken agurra ematen. EIBARKO UDALARTXIBOA

**Bi urte geroago,
1958an, antzeko
beste lan-istripu
batek bost langile hil
zituen zezen-plazaren
inguruan**



ez zegoen Eibarren bizitzen. Horregatik, urteek aurrera egin ahala, gertakari haren lekukotza ia desagertzera iritsi da. Rodríguez familiak, neurri batean, memoria hori gordetzen jarraitu du, baina beste biktimen ondorengoekin kontaktua galtzen joan da.

José Luis Rodríguezek argi dauka bere papera zein den: ez du protagonismorik nahi, ezta inolako aldarrikapenik egin ere. Bere ustez, benetako protagonistak hildako lau langileak dira. Berak, gehienez ere, “zeharkako lekukoa” dela dio. Hala ere, sentitzen du istorio hau

kontatzea beharrezkoa dela, bestela ahaztuta geratzeko arriskua baitago.

Istripu hura ez zen isolatutako kasua izan. Bi urte geroago, 1958an, antzeko beste lan-istripu batek bost langile hil zituen zezen-plazaren inguruan. Sasoi hartan ohikoak ziren halako ezbehar larriak, segurtasun neurri faltagatik eta lan baldintza gogorregatik.

Rodríguezek azpimarratzen duenez, Eibar gaur dena izateko ezinbestekoa izan zen kanpotik etorritako langileen lana. “Haiek eraiki zuten herri hau”, dio. Etxebizitzak, fabrikak eta azpiegiturak altxatu

zituzten, askotan baldintza oso gogorretan eta arrisku handiekin. Horregatik, oroimen ariketa bat egitea beharrezkotzat jotzen du. Ez du inor seinatu nahi, ez du ezer eskatu nahi; gertatutakoa ez ahaztea soilik. Izan ere, bere hitzetan, “hau historia da, eta kontatu egin behar da”.

Zazpi hamarkada igaro diren arren, 1956ko martxo hartako lurjausiak oraindik badu zer esana. Eta José Luis Rodríguez en moduko lekukoei esker, isiltzera kondenatuta egon zitekeen istorio batek bere lekua berreskuratzen du herriaren memorian.

DEBABARRENEAN ZEHAR




Saio honetan, Aste Santua aitzakia hartuta, Debabarrenean geratu direnentzat hainbat plan proposatu ditugu. Ibilaldiak, begiratokiak, museoak eta bestelako bisitak bildu ditugu, egun pasa egiteko edo atsedeen hartzeko. Proposamen guztiak Debabarrena Turismoa webgune-tik hartu ditugu, eta informazio gehiago nahi duenak bertan aurki dezake.

ALBISTEAK

Martxoko datuen arabera, Langabezia-tasak behera egiten jarraitzen du Eibarren zein Debabarrenean.

Itzuliak Debabarrena zeharkatuko du, apirilaren 10ean, Eibar-Eibar etapa eta apirilaren 11n Antzuola-Bergara etaparekin.



Ap 10

ITZULIA	5. ETAPA		(EIBAR)
	HASIERA	13:00	UNTZAGA
	BUKAERA	17:15	T. ETXEBERRIA
ERAKUS.	CARLOS FERNANDEZ	TABERNA	KULTUR
	ZENAREN LANAK	ORDUTEGIA	KAFEAN
	(AP 10- AP 26)		(ELGOIBAR)
MUSIKA	PND	20:00	ZAIZOI
	LETONIAKO PUNK-ROLLA		(EIBAR)
MUSIKA	LA OTRA KALLE	20:30	ASIGOR
	BERTSIOAK		(SORALUZE)

Ap 12

MUSIKA	USARTZA TXISTULARI	12:30	UNTZAGA
	BANDA		(EIBAR)
MENDIA	ARBILEKO KOBARA	09:30	MINTXETA
	IRTEERA		(ELGOIBAR)



95 urte geroago, memoria bizirik

II. Errepublikak oroitzeko prestatu duten programazioa apirilaren 14tik 26ra bitartean garatuko da eta hitzaldiak, antzerkia, bisita gidatuak eta familia-jarduerak izango dira protagonista. Cristina Almeida, Manuela Carmena eta Paquita Sauquillo bezalako figura nabarmenek hartuko dute parte egitarauan. Horrekin batera, Bañuelos de Burebako (Burgos) Antonio Benaiges eskola proiektua azalduko dute bertako elkarteak.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

Aurreko astean aurkeztu zuten II. Errepublikaren aldarrikapenaren inguruan Udalak prestatu duen egitaraua Jon Iraola alkateak, Andoni Zabala Kultura zinegotziak, Mertxe Garate Ego Ibarra batzordearen zinegotziak, Jesus Gutierrez historialariak eta Irene Hernando aktoreak.

Apirilaren 14an, martitzenean II. Errepublikaren aldarrikapenaren 95. urteurrena beteko den egunean hasiko da egitaraua, Eibar Memoria Demokratikoaren Leku gisa aitortzeko plaka udaletxean ipintzeko ekitaldiarekin. Ekitaldi instituzionala 10:30ean hasiko da, Untzaga plazan, eta Memoria Demokratikoaren Estatuko idazkaria bertan izango da, udal ordezkariekin batera.

Estatuko Aldizkari Ofizialak (BOE) astelehen honetan argitaratu du Eibar Memoria Demokra-

tikoaren Leku izendatzen duen Memoria Demokratikoaren Estatu Idazkaritzaren ebazpena. Bertan jasota dagoenez, “Eibarko hiriak Memoria Demokratikoaren Leku gisa aitortzeko oinarriak biltzen ditu, errepublikaren legezketasunaren defentsa aktiboaren nahiz nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien agertoki izan baita”. Nabarmentzen duenez, Eibarrek, Bigarren Errepublika aldarrikatu zuen Estatuko lehen hiriak, “demokraziarekiko eta konstituzionalismoarekiko herritarren konpromisoa” sinbolizatu zuen. Gogorarazten duenez, 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpearen ondoren “legezko Gobernuari leial” mantendu zitzaion, eta “matxinoen erasoaldiaren helburu estrategiko eta sinboliko” bihurtu zen. Eta, gaineratzen duenez, “bonbardaketa sistematikoak eta indiskriminatuak

jasan zituen, tartean 'alfonbra-bonbardaketak', eta Alemaniako eta Italiako hegazkinek botatako bonba su-eragileak, biktima zibil ugari eta hiri suntsipena eragin zituztenak”.

Cristina Almeida, Manuela Carmena eta Paquita Sauquilloekin mahai-ingurua

Egun berean (apirilak 14), 19:00etan, *Avances sociales de la II República y el papel de las mujeres* izenburuko mahai-ingurua egingo da Coliseo antzokian, Cristina Almeida, Manuela Carmena eta Paquita Sauquilloren parte-hartzearekin. Moderatzaile-lanetan Irene Hernando aktore eibartarrak jardungo du. Sarrera doan izango da, toki guztiak bete arte (nahitaez gonbidapena eskuratu beharko da Kutxabank-en bidez, edo Coliseoko leihatilan).

Apirilaren 15ean, berriz, *La educación y la cultura en la II Republi-*



Goiko irudian Untzaga plaza jendez beteta, 1931ko apirilaren 14an. Behean, Indalecio Ojangurenek 1933an egindako argazkia.

ca: *Proyecto Escuela de Antonio Benaiges*” hitzaldia egingo da, 19:00etan Portalean, Jesus Gutierrez historialariak gidatuta.

Eta, apirilaren 16an (19:00etan Coliseo antzokian) eta 17an (22:00etan Untzaga plaza), antzerkia izango da protagonista, Irene Hernando aktore eibartarrak urteurrenerako bereziki sortu duen *Ahotsa(k)* antzezlaren aurkezpenarekin.

Apirilaren 18an, *Altxorren Bila* jokoak egingo da, II. Errepublikaren aldarrikapen-akta bilatzeko.

Bisita gidatuak

Bisita gidatuak ere antolatuta dituzte, Jesus Gutierrez historialariarekin: apirilaren 19an eta 26an izango dira, gaztelaniaz eta euskaraz, Untzagatik abiatuta. Bisitak doan izango dira, eta izena emateko Udalaren webgunean eskuragarri ipiniko duten formularioa bete beharko da.

Eta, amaitzeko, apirilaren 21ean, *II. Errepublikaren eragina Euskal Herriko herrietan* hitzaldia emango du Patxi Juaristi Larrinagak, euskaraz, 19:00etan Portalean.

IRENE HERNANDO •

'Ahotsa(k)' ikuskizunaren sortzaile eta zuzendaria

“Eibarko hiru emakume ezberdinekin historia kontatzen joango gara”

Nolako izan da 'Ahotsa(k)' ikuskizunaren sorkuntza-lana?

Ahotsa(k) ikuskizunak Indalecio Ojangurenek 1933an atera zuen argazkia, emakume eibartarrek lehenengoz bozkatu zuteneko argazki ezaguna dauka oinarri bezala. Hortik abiatuta istorio bat sortu dut. Eibarko hiru emakume ezberdin izango dira protagonista, eta eurekin batera 1931tik 1933ra bitarteko historia, garai hori bakoitzak nola bizi izan zuen kontatzen joango gara. Eta hortik gaur egungo hausnarketa batera egin-gu dugu salto. Egia da gauzak asko hobetu direla emakumeen bizitzetan, baina ezin gara erlaxatu.



Ikuskizuna %100 eibartarra da, ezta?

Bai, eibartarrak diren hiru aktore profesional izango dira protagonista: Andrea Covadonga, Irati Sampayo eta Rita Martin, eta ni neu ere bertan arituko naiz. Lan honen dramaturgia eta zuzendaritza nireak dira. Musikan Quico Puges eta beste hainbat musikari izan ditugu, honi kolorea ematen. Koreografiak Kaxa, Os Galaicos eta Kezka dantza taldeek sortu dituzte. Eta zuzenean abesten arituko diren ahots batzuk ere badaude, Eibarko abesbatza ezberdinetatik etorritako emakumeen ahotsak, hain zuzen ere.

Eibartarra eta feminista.

Partaideen %98 emakumeak gara, bai. Nahita egindako hautua izan da. Ondo legoke %100a emakumeak izatea, baina jakinda gaia zein den, eta hausnarketa zein den ikusita, gizon batzuk sostengu moduan behar izan ditugu, batez ere musikan. Aktore bezala gizon bakarra, Gorka Errasti arituko da, eta berak egingo ditu gizon guztien paperak.



JESUS GUTIERREZ • Historialaria

Eibarren II. Errepublikaren aldarrikapenaren ospakizun-jardueren 25. urteurrena betetzen da

Frankismo garaian, modu klandestinoan, ezkerreko militanteek suziriak jaurtitzen zituzten apirilaren 14an, 1931n Eibarren bizitako gertakari historikoen lekukotasuna uzteko; izan ere, II. Errepublika aldarrikatu zuen estatuko lehen tokia izan zen Eibar. 1979an, diktaduraren ondorengo lehen udal hauteskundeen ostean, udal zerbitzu ugari egituratzen hasi ziren, eta lan konplexu horretan laster agerian geratu zen herritarrei hiriko berezitasunak zabaltzearen garrantzia; bereziki, armagintzarekin izan zuen lotura, eta ondoren hainbat sektore produktiborekin izan zuena, kulturaren eta euskararen sustapenean izan duen inplikazioa, 1346an Eibar sortu zenetik izandako gertakari historiko garrantzitsuenak, eta abar.

Hainbat legegintzalditan udal ordezkariak erakutsitako apustu irmo hori, besteak beste, 1989an Ego Ibarra Batzordea sortzeko bultzadan islatu zen, tokiko memoria historikoa eta kultura berreskuratzeko eta eibarreraren aldaera dialektalaren ikerketa sustatzeko helburuarekin. Ordutik hona ekintza ugari egin dira, eta horietan funtsezkoa eta ezinbestekoa izan da udaleko beste arlo batzuekin –bereziki Kultura sailarekin eta Udal Artxiboarekin– izandako sail arteko lankidetzak.

Testuinguru horretan, 2001ean udalbatzak erabaki zuen osoko bilkura batean 1931ko II. Errepublikaren aldarrikapenaren ospakizunak bost urtez behin egitea. Hain zuzen ere, 2026an betetzen dira lehen ediziotik hogeita bost urte, eta ordutik jarduera ugari garatu dira egin diren bost edizioetan. Ardatz nagusietako bat balio errepublikarren zabalkundea izan da: kultura, genero-berdintasuna, autonomia erkidegoen estatua, irakaskuntza laikoa, eta abar.

Hori dela eta, azken hogeita bost urteotan ospe handiko pertsonak etorri dira Eibarrera hainbat arlotatik: historialariak, juristak, idazleak, artistak, aktoreak, eta abar. Funtsezko alderdi bat herritarren parte-hartzea izan da; horregatik, gaztelaniaz zein euskaraz askotariko jarduerak egin dira, hala nola hitzaldiak, erakusketak, antzerki-lanak, kontzertuak, II.

“2001ean udalbatzak erabaki zuen osoko bilkura batean 1931ko II. Errepublikaren aldarrikapenaren ospakizunak bost urtez behin egitea”

Niceto Alcalá
Zamora, Espainiako II.
Errepublikako lehen
presidentea, Eibarrera
etorri zen 1932ko irailean.
Argazkia Urkizuko
parkearen ondoan
aterata dago.



Errepublikarekin lotutako liburuen zabalkundea, dokumentalak, bisita gidatuak, eta abar.

2001eko lehen edizio hartatik hona, pertsona garrantzitsu asko etorri dira hirira; Paul Preston eta Juan Pablo Fusi historialarien parte-hartzearekin eta Portalean egindako “Republikia 1931-2001” erakusketarekin hasi zen ekimen hura aberastuz joan da etengabe. Egin diren bost edizioetan aipatutako gaiak landu dira, eta kasu batzuetan arreta berezia jarri da gai jakin batzuetan, hala nola kulturaren edo emakumeen eskubideetan.

“Egiaztatuta dago eibartarrek, oro har, harrotasunez bizi dutela 1931n gure arbasoek protagonizatutako gertakarien ondarea”

Balio errepublikarren zabalkundea ikuspegi nazionaletik landu da, baina baita Euskadin eta bereziki Eibarren izan duen isla praktikoa eta eragina aztertuz ere. Egiaztatuta dago eibartarrek, oro har, harrotasunez bizi dutela 1931n gure arbasoek protagonizatutako gertakarien ondarea; eta hori berresten da azken hogeita bost urteotan egin diren jarduerak tokiko historiari lotuta daudenean. 1931n II. Errepublikaren aldarrikapenak iraganari lotutako Espainia batean izan zuen esanahia ulertzea garrantzitsua bada ere, datuek erakusten dute Eibarren herritarrek erantzun sendoa ematen dutela jarduerak hirian bizitako gertakariekin lotuta daudenean.

Horregatik guztiagatik, 2026ko edizioan aurkeztu den jardueraprograma askotarikoa da, aurretik aipatutako gakoak uztartzen dituen: hitzaldiak, bisita gidatuak, antzerkia, talde-jarduerak, eta abar. Jarduera horiek bizirik eusten diote eibartarrek erakusten duten pertenezia-harrotasun horri, baina ez II. Errepublikaren aldarrikapenean izan zuten garrantziagatik soilik; aitzitik, gertakari historiko horretatik harago, Eibarko historiaren identifikazioa aldarrikatzen dute, mendeetan zehar gure aurretik Ego ibaiaren haran estu hau –gure etxea– eraiki duten pertsonen konpromiso, ahalegin eta lanari esker sortu den historia hori.

ASTEROIDEIAK PROIEKTUA


Zientzia dibulgazioa euskeraz

FUSIO NUKLEARRA ETA BERROGEI URTEKOEN KRISIA

Zortzi minutu eta hogeiei segundo. Hori da argia osatzen duten partikulek, fotoiek, Eguzkitik Lurreraino dagoen distantzia egiteko behar duten denbora. Hemen, Lurrean, etengabe jasotzen dugun energia-fluxu horren bidea, ordea, askoz ere luzeagoa da. Eguzkiaren nukleoan bertan sortu ondoren, ehunka mila urte behar ditu Eguzkiaren erradioa osatzen duten 700.000 kilometroak zeharkatzeko. Zortzi minutuak icebergaren punta baino ez dira. Gaurkoan, energia-fluxu horrekin batera bidaiatuko dugu: Eguzkiaren zentroraino sartuko gara, egunak argitzen eta berotzen dizkigun energiaren sorrera eta ibilbidea aztertzeko.

FUSIO NUKLEARRA

Inguratzen gaituen objektu orok argia igortzen du: Izarrak hidrogeno gazez osaturiko bola erraldoiak dira (hidrogenoa taula periodikoko lehen elementua da, ximpleena: protoi eta elektroi batek osatzen dute hidrogeno atomoa). Unibertsoan dugun elementurik ugariena izanik, grabitate indarrak noizbait han-hemenka aurkitzen dituen hidrogeno hodei lausoak elkar-tu, zatitu eta gutxinaka konprimatzen ditu. Kolapsoa bortitza da, eta hasieran espazioan zehar barreiatuta zeuden hidrogeno atomoak estu-estu egotera behartzen ditu; prozesu horretan, gasaren tenperatura $-270\text{ }^{\circ}\text{C}$ -tik $1.000.000\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ra igotzen da. Muturreko baldintza



Lirudia. Grabitatearen indarra eta fusioak askaturikoa orekatzeko, izarra oreka hidrostatiakoan dagoela esaten da. Bestalde, argiaren ibilbide alderraiak ikus dezakegu eguzkiaren barruan. Behin gainazalera heltzen denean, ordea, zortzi minutu baino ez ditu behar Lurrera iristeko.

horietan, naturaren fenomeno bortitzenetariko bat da nagusi: Fusio nuklearra.

Esan bezala, Eguzkia bezalako izar gazte-helduen nukleoak milioika gradutara daude. Tenperatura horiek direla eta, Eguzkia osatzen duten hidrogeno atomo guztiak ionizatuta daudela esaten da: elektroiak galdu dituzte eta protoi biluzi huts bihurtu dira, elektroi zopa handi baten erdian igeri.

Baldintza arruntetan, karga positibodun partikula bi izanik, talka egitean protoiak aldaratuko lirarteke.

Baina hain dira bortitzak talkak Eguzkiaren nukleoan, non aldaratzen dituen indar elektrostatikoa gainditu eta elkarrekintza nuklear bortitzaren bitartez elkartu edo fusionatu daitezkeen.

Horrela, lau hidrogeno atomotatik helio atomo bat sortzen da (bai, txilibitu-ahotsa jartzen digun gas bera!). Erreakzioak, bestalde, sekulako energia kantitatea askatzen du: hidrogeno gramo bakar baten fusioak 14 MOAB bonbaren leherketaren pareko energia aska dezake. Erraz ulertzeko, Eguzkiak 600 bilioi kilogramo "erretzen" ditu segunduro.

Nukleotik kanporako energia garraioa, ordea, oso prozesu mantsoa da. Fotoiei dagokie batez ere energia fluxu hori guztia garraiatzea, baina hain da dentsoa zeharkatu behar duten gasa, non milimetro gutxi bartzuk baino ezin dituzten egin elektroik batekin talka eta norabidez aldatu aurretik. Handik milimetro batzuetara berriz. Eta gero berriz. Eta beste behin... Pinball erraldoi

2. Irudia. Irudia Izarren berrogei urtekoen krisia. Nukleoko erregaia agortu eta kanpo geruzetan eskuragarri duena erretzen hastean, izarrak puztu eta gorritu egiten dira.

baten antzera garraiatzen ditu gure izarrak fotoiak gainazalerantz, sigi-saga, prozesuan milioika urte galduz.

Behin gainazalean, materiak (atomoak) eta erradiazioak (fotoiak) azkenik haien bideak bana ditzakete, eta orduan bai, zortzi minuturen buruan, Eguzkiaren argiak hodeiak saihestu eta azala berotuko digu, terraza horretan eserita, begiak itxi eta kafe gozoari trago bat ematen diogun bitartean.

ERRALDOI GORRIAK

Seguraski inoiz entzuna duzu Eguzkia bere bizitzaren erdian dagoela orain, eta noizbait, gu denok bezala ere hil egingo dela. Hori baino lehen, ordea, gure izarrak berrogei urtekoen krisi moduko bat jasango du: nukleoko hidrogeno guztia agortu ondoren, honek une batez grabitatearen menpe kolapsatuko du, erregairik ezean, ez baitago kanporantza egiten duen indarririk.

Kolapso horren ondorioz, nukleoa izugarri berotuko da, aldi berean bero horrek izarraren kanpoko geruzetan erabili gabe dagoen hidrogenoa erretzea ahalbidetuko diolarik.

Geruza-erretze hori lehen azaldu dugunaren oso antzekoa izanagatik, funtsezko ezberdintasun bat dauka: nukleoan gertatzen dena baino askoz ere energetikoa goa da. Hori dela eta, energia-fluxu horrek izarraren kanpoko geruzak kanporantza bultzatuko ditu, izarra globo bat balitz bezala puztuz. Puzte horrek, bestalde, izarraren gainazala hoztuko du, eta, ondorioz, izarra gorrixka agertuko zaigu (oroitu nola temperatura eta kolorea estuki konektatuta dauden; urdina = beroa, gorria = hotza). Haien tamaina dela eta, izugarri ondo ikusten dira Lurretik erraldoi gorri gisa ezagutzen diren izar zahar hauek!

Laburbilduz, izarrek hidrogenoa erretzen dutelako egiten dute distira. Disdira horren koloreak izar gazte eta zaharren artean ezberdintzea ahalbidetzen digu: horiak gazte, eta gorrixkak, aldiz, zahar. Gure izarra, Eguzkia, hain hurbil daukagu non distira hori, literalki azalean senti dezakegun, hori bai, ikaragarriko atzerapenarekin: argia Eguzkiaren gainazeletik duela 8 minutu atera bazen ere, hau sortzen duen energia-fluxua Lurra Izotz Aroan murgilduta zegoenean sortu zen Eguzkiaren barruan!





JOSU AGIRRE

Kupel hutsak Hego Euskadin

Isasiko La Sallen 80. hamarkadan ikasi genuenontzat Ignacio Senperena izan zen ingeleseko maisua. Betirako lagun bilakatuko ginen urte haietako gelakideok elkartzen garenean Ignacioren esaldiak sarri ekartzen ditugu gogora.

Horetako bat testuinguru honetan gertatu ohi zen: aurreko ikasgaia emanda, maisu edo andereñoa gelatik irten eta ingurukoekin berriketan hasten ginen. Ignacio iritsi orduko egiten genuen burrundarak edozein dezibelio-neurgailu leher zezakeen.

Ignacio bat-batean gelan sartu eta esaten zigun: “Kupel hutsak ematen duzue”.

Metaforaren azalpena, fisikatik, oso erraza: hutsik dagoen kupelari kolpeak eman edo aldapan behera botaz gero, danbada, bulla eta zarata handia egingo du, hain justu ere barruan ezer ez dagoelako, edukirik ez duelako; aldiz, kupela edukiz beteta badago, soinua askoz leunagoa izango da, ez du zaratarik egingo.

Hau esanda, lerro hauek Aberri Egunean idazten ari naizenez, Ignacio maisuaren esaldiaz baliatuko naiz nire ustetan ezinhobeto aplika dakioken kontu bati heltzeko:

Azitaingo rotondatik Eibarrera sartzean, justu bariantea eskumara, seinale/panel zahar bat dago, ongi etorria adierazten duena. Bertan “Euskadi” sprai txuriz tapatu eta bere ordeztu “Euskal Herria” beltzez idatzi zuen aspaldi “artista” anonimoren batek.

Azken urteetan Euskadi hitzaren aurkako estrategia potentea egon da. Gutxiespen kanpaina, edukiz hutsa baino arrakastatsua. Jada modako terminoa ez izatera heldu da, bere burua abertzaleztat dutenen artean ere.

Kupel hutsekin bezala, pintada horren atzean ez dago inolako hausnarketa sakon edo mamitsurik: pintada hutsa, inposaketa hutsa, zarata hutsa eta ekarpen hutsa.

1936ko gerran eta diktaduran gure amama eta aitxitek min izugarria jasan zuten abertzale izateagatik. Haientzat Euskadi hitza maitatuena eta estimatuena artean zegoen.

Euskadi hitza ezabatzea nahiko zutenek ez al lirateke izan behar ba espainiar eskuin muturrekoak? Despistatuta nago.

Urtero bezala, gurasoek eta guk ere gaur Ikurriña aterako dugu leihora, zaratarik gabe; eta Azitaingo margolana egin zuen artistak ezin duenez hau manipulatu, ba hortxe: Gora Euskadi Askatuta.

“1936ko gerran eta diktaduran gure amama eta aitxitek min izugarria jasan zuten abertzale izateagatik. Haientzat Euskadi hitza maitatuena eta estimatuena artean zegoen”



Euskararen sustapenean zure ekarpena egiteko aukera izango duzu.

Herriko produktuak eta zerbitzuak ezagutzera emateko **erakusleho ezinhobea** da.

PARTE
HARTU

ARRATEKO TONBOLAN!

Hogei urte baino gehiago dira...eta kitto! Euskara Elkartea Kittonbola antolatzen hasi zela **Arrate egunean** eta dozenaka dira urtero tonbolarekin bat egiten duten establezimenduak (taberna, denda, negozio, enpresa...)



Ematen duzuna (menuak, arropa, produktuak, jatekoak...) **saria izango da tonbolan.** Trukean doako **publizitatea:** Establezimenduaren izena agertuko da bi aletan eta egunean bertan tonbolan.

Informazio
gehiagorako:

943200918

elkartea@etakitto.eus


eta kitto!
euskara elkartea



Korrikaren Lekukoak



Argazki guztiak: www.etakitto.eus



Eibarko ibilbide osoaren bideoa: [YouTubeko gure kanalean](#)

eibartarrak KORRIKA- rekin bat



Karropoteoa euripean



Bizimina-ko sukaldari finak



Urkiko Korrika txikia



Herri bazkarian ia 300 lagun elkartu ziren



Ipuruako Korrika txikia



...eta kitto!-ren ordezkariak



Korrika lehen aldiz Vienan



Herri bazkaria girotzen



ALAITZ GARATE

Biolentzia ezkutua

Duela pare bat aste Eibarren Bidebarrieta kalean familia bat etxegabetu zutela publikatu zen. Hiru adingabe dituen familia bat, inongo etxebizitza alternatibarik gabe.

Errealitatea da. Gora doa kale gorrian dauden pertsonen kopurua.

Agintariek desalajoak agintzen dituzte, kale-egoeran dauden pertsonak bizitokizat hartutako lekuak husteko. Politikariek, poliziek, epaileek, burokraziak nahiz komunikabideek osatutako zurrumbilo horretan, etxegabetze horiek ez dira ez puntualak ezta toki zehatz batera mugatutakoak ere.

Euskal Herriko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak bildutako datuen arabera, Euskal Herrian, 8.000 pertsona inguru daude etxerik gabe. Eta sindikatuak berak ikasturte honetan jakinarazi duenez, batez beste, hiru etxegabetze izaten dira egunean Euskal Herrian.

Etxebizitza bizirauteko oinarrizko baliabidea da. Etxebizitza bat eskuratzeko dirua eduki behar bada, etxebizitzaren kalitatea eta etxebizitza izateko aukera klase sozialaren arabera izango da beti.

Ardura indibiduala izatetik urrun, hori gauzatzen duen sistemari erreparatu behar zaio. Etxebizitzaren arazoa deritzoguna, beraz, sistema kapitalistan oinarria duen arazoa da. Jabe batzuek ehundaka etxebizitza dituzten bitartean, milaka pertsona kale gorrian bizitzera kondenatuta daude eta beste hainbeste kanporatuak dira sistematikoki.

Doako etxebizitzaren ideia ez da ideia oso konplexua, eta, hala ere, errazago bururatzen zaigu prezioa pixka bat jaitsi beharko genukeela etxebizitzaren arloko askotariko arazoak konpontzeko eta eztabaida izango litzateke zenbat jaitsi beharko litzatekeen eta zeren kontura, erabat doako etxebizitza izatearen aukera baino.

Proposamen horiek guztiak, sistema kapitalisten esparruan egin behar diren erreforma zehatzetara mugatzen dira, ez dira arazoaren errora joaten eta ez dituzte enpresari eta jabeen irabaziak zalantzan jartzen.

Araozari benetan aurre egin nahi bazaio, etxebizitza merkantzia bihurtzen duen logika zalantzan jarri beharko da. Bitartean jarrai dezagun sarbide unibertsaleko eta kalitatezko etxebizitzaren alde

“Jabe batzuek ehundaka etxebizitza dituzten bitartean, milaka pertsona kale gorrian bizitzera kondenatuta daude eta beste hainbeste kanporatuak dira sistematikoki”

IRATI LASA • Euskal Herriko Itzuliko bolondresa

“Itzuliaren atzean ikusten ez den lan handia dago”

Euskal Herriko Itzulia gaur iritsiko da Eibarrera, ohiko Eibar-Eibar etaparekin, edizioko saiorik gogorrenetako batean. Irati Lasa eibartarrak barrutik bizi du lasterketa, bost urte baitaramatza antolakuntzan lanean. Bulego iraunkorrean aritzen da, akreditazioak eta informazioa kudeatzen, eta familiarik jasotako loturari esker iritsi zen Itzuliara.

Testua
IRATI ALVAREZ
MALAXETXEBARRIA

Euskal Herriko Itzulia gaur, apirilak 10, iritsiko da Eibarrera, ohiko Eibar-Eibar etaparekin. Edizioko saiorik gogorrenetako bat izango da, ibilbide menditsu eta zorrotzarekin. Barrutik bizi du lasterketa Irati Lasa eibartar gazteak, Ainhize bikiarekin eta bere aita Armandorekin batera. Bost urte daramatza antolakuntzan, bulego iraunkorrean. Familiarik jasotako loturari esker iritsi zen Itzuliara, eta egun, ilusioz eta arduraz bizi du txirindularitzako hitzordu handienetako bat.

Zer moduz zaude Irati? Gogotsu?

Bai, oso gogotsu! Gainera, ohikoa ez den moduan, eguraldi oso ona egiten ari da. Dena oso ondo doa eta oso pozik gaude.

Noiz eta nola hasi zinen Itzulian lanean?

Nire aita duela 30 urte inguru hasi zen Itzulian lanean. Pandemiaren ondoren, 2021ean, antolakuntzan jende gehiago behar zuten, plantila ia bikoiztu egin behar izan zelako. Orduan, aitak aukera eskaini zidan; une hartan libre nengoen, eta horrela hasi nintzen. Orduetik, bost urte daramatzat hemen, eta oso gustura nago. Hasieran aitari laguntzen hasi nintzen bulego iraunkorrean, eta gaur egun ere bertan egiten dut lan, nahiz eta hainbat zereginetan

aritu izan naizen. Lantaldean giro oso ona dago, familia giroa, eta hori asko nabaritzen da.

Zer da zehazki bulego iraunkorreko lana?

Bulego iraunkorra bi zatitan banatzen da: front office eta back office. Ni front officean aritzen naiz nire ahizparekin batera, hiru edo lau lagun gaude bertan. Back officean hamar bat pertona gaude, nire aita barne. Guk akreditazioak banatu eta informazioa ematen dugu, eta lasterketaren irteeran zein helmugan egoten gara.

Etetik jaso duzu Itzulian parte hartzeko grina?

Bai, batez ere aitarengandik. Eibarren betidanik egon da txirindularitzarako zaletasun handia. Guk agian ez dugu hainbeste ezagutza, baina Itzuliak sortzen duen giroak erakartzen gaitu. Jende asko biltzen da, bai telebistan bai kalean, eta giro hori bizitzea oso berezia da.

Bikiarekin lan egitea berezia izango da.

Bai! Taldean jende gehiago egon arren, familia alboan izateak lasaitasuna ematen du. Front officean jende askorekin egon behar da eta egoera desberdinei erantzun, eta horretan laguntza izatea garrantzitsua da.

Zein da lanaren alderik errazena? Eta zailena?



Ainize Lasa, Armando Lasa eta Irati Lasa, Itzuliako bolondresak. IRATILASA

“Bulego iraunkorrean jende askorekin egon behar da eta egoera desberdinei erantzun”

Errazena, jendearekin harremanetan egotea. Adibidez, umeez erakusten duten ilusioa ikustea oso polita da.

Zailena, berriz, akreditazioen datuak kudeatzea. Plataforma batean sartzen ditugu datuak, eta akatsen bat eginez gero, zuzentzea zaila izan daiteke. Jende askoren informazioa kudeatzea estresagarria izan daiteke batzuetan.

Itzulia esanguratsua da eibartarrentzat.

Bai, noski. Industria garaitik eta Eibarko Bizikletatik datorren tradizioa da, eta betidanik egin dira Eibarko eta Arrateko etapak. Herriko zale batzuek sortutako ekimena izan zen, eta gaur arte iritsi da.

Zuretzat, eibartar gisa, zer da antolakuntzan egotea?

Harrotasuna. World Tour mailako lasterketa izanik, mundu osoan ezaguna den ekitaldi bat Eibarren izatea eta herria horrela erakustea oso berezia da.

“Eguna goizeko zazpietan hasten dugu muntaketekin, eta gaueko bederatzietan amaitzen da dena jasotzean”

Zein mezu zabaldu nahiko zenuke?

Herritarrak animatuko nituzke kalera atera eta etapa ikustera. Giroa sortzea oso garrantzitsua da, eta Eibarren bada, are gehiago. Arratera igotzea ere gomendatuko nuke.

Gainera, Itzuliaren atzean dagoen lan guztia nabarmendu nahiko nuke. Kanpotik lasterketa laburra dirudi, baina eguna goizeko zazpietan hasten dugu muntaketekin, eta gaueko bederatzietan amaitzen da dena jasotzean. Ikusten ez den lan handia dago atzean.



Kalamua judo taldeko Uxue Gutierrez, Euskadiko azpitxapeldun Oiartzunen

E.B. Martxoaren 28an, Oiartzunen jokaturako Eskolarteko Jokoeak eta Kadeteetako Euskadiko Txapelketak emaitza gazi-gozaok utzi zituzten klubarentzat, baina baita poz handiak ere.

Kalamua taldeko Uxue Gutierrez izan zen protagonista nagusietako bat, infantil mailako -44 kiloko kategorian Euskadiko azpitxapeldun izatea lortuta. Txapelketan zehar maila handia erakutsi

zuen, eta Espainiako Txapelketarako sailkatzeko aukerak ere izan zituen. Hala ere, azken borrokan galduta, plaza bere aurkariaren esku geratu zen.

Bestalde, June Valladaresek ere parte hartu zuen kadete mailako -63 kiloko kategorian, bere lehen Euskadiko Txapelketan. Esperientzia baliotsua pilatzeaz gain, bosgarren postua eskuratu zuen, etorkizunerako oinarri sendoak jarriz.

Urbat Urkotroniken neskek lidergoa hartu dute

Leioa WP B liderrari irabazi ondoren, Urbat Urkotroniketik emakumezkoen Euskal Herriko Ligaren lidergoa hartu du. Eibartarrek ondo eutsi zioten partiduan zehar hartutako abantailari eta 17-14 irabazi zioten Bizkaiko taldeari.

Gizonezkoen senior taldeak, bestalde, bihar, zapatua (apirilak 11), jokatu du, 2. Nazionalean jarraitzeko lehia garrantzitsuan. Nou Godellari egingo dio bisita 17:30ean hasiko den partiduan.

Eskolartekoetan, ostera, Lautadana txapelketa jokatu da bihar, zapatua, 10:00etatik 18:00etara, Gasteizen.



Txirrindularitzaren izar berria zuzenean ikusteko aukera izango dugu gaur

E.B. Paul Seixas da txirrindularitzaren izar berria. Denboraldi hasieran maila bikaina erakutsi ondoren, Itzulian egin du eztanda eta Eibarren zuzenean ikusteko aukera izango dugu gaur, barixakua.

Seixasek aurreko etapetan bezala jarraitzen badu, maillot horiaren lehia erabakita egon daiteke (aldizkaria inprentara joan zen unean, eguen goizean, 1:59ko aldea ateratzen zion Primoz Roglic bigarrenari), baina hemen jokatu den etapa

ez da nolanhikoa izango.

Eibarren hasi (13:00etan) eta amaituko (17:17-17:43 artean) den etapak 176,2 km izango ditu eta zortzi mendate igo beharko dituzte. Krabelinera Orbeko bidetik igoko dira (15:34-15:49 artean hasiko dira igotzen) eta Ixuara ohiko bidetik (16:33-16:55 artean). Helmugara iristeko, txirrindulariak Maltzagatik etorriko dira eta lasterketa Toribio Etxebarria kalean amaituko da (17:17-17:43 artean).



Deporreko bederatzia atleta Gipuzkoako Federazioaren teknifikazio programetan

E.B. Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatutako teknifikazio programen barruan, bederatzia atleta eibartar deitu dituzte Cambrils eta Benicasimeko kontzentrazioetan parte hartzeko. Apirilaren 6tik 11ra egiten dihardute egonaldi hauek: U16 mailakoak Cambrilsen daude, eta U18 zein U20 kategoriakoak Benicassimen.

Eibarko ordezkaritza zabala da, espezialitate askotako atletak aukeratu baitituzte. Abiaduran Unai Alvarez, Malen Anderez, Naia Astigarraga, Elene Arrazola eta Elene

Beitia ari dira; jaurtiketetan Sonia Mendy; saltoetan Maiaalen Cenarruzabeitia; eta erdi-fondoan Nora Martinez eta Ugaitz Gartzia.

Gainera, klubeko bi kidek ere teknifikazio programetan dihardute entrenatzaile lanetan: Markel Gutierrez eta Odei Jainaga, azken hau jaurtiketa arloan erreferente izanik.

Kontzentrazioetan, eguneroko errutina zorrotza izango dute atletek, goizeko eta arratsaldeko entrenamendu saioekin, errendimendua eta garapen teknikoa lantzeko helburuarekin.

Bergara Pneumatikoak da Kopako lider berria

Aste Santuaren aurretik jokatu zen futbol zaletuko Kopa txapelketaren azken jardunaldia eta aldaketak egon dira sailkapenaren goiko postuetan. Lehen bi taldeak, Bergara Pneumatikoak eta Bar Marem, elkarren aurka aritu ziren eta lehengoak lortu zuen garaipena, 2-1. Horrela bigarrenari aurea hartu zion sailkapenean, sei punturekin berdinduta jarraitzen duten arren.

Hirugarren postuan, puntu berdinekin, Kalaka Buenos Aires dago. Honek Xania Tabernari irabazi zion eta ligan baino maila hobe ematen ari da. Kontrara, Malapek, ligako txapeladunak, lasai hartzen dihardu Kopa txapelketa eta Limpiezas Ruedaren aurka berdindu zuen.

SAILKAPENA

1. Bergara Pneumatikoak, 6 puntu
2. Bar Marem, 6 puntu
3. Kalaka Buenos Aires, 6 puntu
4. Malape Taberna, 5 puntu
5. Xania Taberna, 4 puntu
6. Limpiezas Rueda, 3 puntu
7. Garajes Garcia, 2 puntu
8. Adahi Etxegi, 0 puntu
9. Baserri, 0 puntu

Eibar Triatloi Taldeko Pablo Zabala bosgarren izan zen Lizarrako Duatloian

E.B. Asteburu bizia izan zuten Eibar Triatloi Taldeko kideek Aste Santuaren aurretik. Martxoaren 28an, Zuiako Duatloian izan zen Aitor Fernandez eta, euriari eta hotzari egin behar zion aurre beste 600 lasterketariaren artean, 238. postuan amaituz.

Egun berean, Intxorta Ahuntzen trailean, Ander Telleriak lokatzez

beteriko ibilbidean egin zuen korrika 69. postua lortuz.

Hurrengo egunean, Oscar Frias Getxoko erdi maratonia aritu zen, "eguraldi hobearekin", eta 114. postuan sailkatu zen. Pablo Zabala, bere aldetik, Lizarrako Duatloian izan zen eta asteburuko emaitzarik onena lortu zuen, 5. postuan amaituz, "podiumaren borrokan ibili ostean".





Ipurua Gimnasia Erritmikoko Klubeko Nora Eizagirre, Euskadiko txapeldun

E.B. Gimnasia erritmikoko Ipurua Klubak denboraldi bikainarekin jarraitzen du, bai banaka bai taldeka arrakasta berriak lortuz. Joan den zapatuan, martxoaren 28an, Nora Eizagirre Euskadiko txapeldun izan zen oinarrizko kadete mailan, Amurrión jokatu zen Euskadiko Banakako Oinarrizko Txapelketaren bigarren fasean.

Lehiaketa, gainera, taldekako Kopatxapelketarako sailkapen-kontrola izan zen, eta Ipurua Klubak bere oinarrizko hiru taldeekin pla-

za lortu zuen. Nora Jainagak, Mara Lanasek, Helena Olasolok, Maren Arzak eta Malen Rodriguezek osatzen duten taldeak bigarren postuan amaitu zuen, Euskal Ligako bi jardunaldiek bat eginda. Uxue Astarloak, Maren Jainagak, Noa Larrañagak, Maddi Arrazolak eta Maddi Lanasek osatutako kadete taldeak bigarren postua lortu zuen, eta jubenil taldeak –Uxue Etxeberría, Yuma Otalvaro, Nikole Aranbarri, Itziar Alberdi eta Olatz Vieira– hirugarren postuan amaitu zuen.

Jhon Nuñez Euskadiko txapeldun hirugarrenez

E.B. Inda Team taldeko Jhon Nuñez borrokariak ez du areriorik KI modalitateko 67 kilotik beherakoan mailan. Izan ere, martxoaren 28an Euskadiko txapelketan izan zen eta, bi borrokak puntuetan irabazi ondoren, txapela jantzi zuen hirugarren urtez jarraian.

Garaipen horrekin, Nuñezek Espainiako Txapelketa jokatu du modalitate berean.



Deporreko squash taldea Euskadiko txapeldun

E.B. Martxoaren 28an, Euskadiko Taldekako Txapelketa jokatu zen Ipurua kiroldegian eta txapela bertan geratu zen, Eibarko Klub Deportiboko squash taldeak irabazi baitzuen. Alberto Ferreiro, Sergio Salgado eta Victor Mendozak osatzen duten taldeak Sestaoko Benedikta Squash Klub A-ren kontra jokatu zuen finala eta 2-1 gailendu zitzaion.

Gaur egun kiroldegian dauden pistetan jokatu den azken txapelketa izan da, Udalak hiru pistetatik bi kendu egingo dituelako. “Udalaren konpromisoa geratzen den pista bakarria birmoldatzea da, egungo pistek ez baitituzte arauzko squash pista baten neurri ofizialak biltzen”, squash taldekoen berbetan.

Squash taldekoen hurrengo zita bakarkako Euskadiko Txapelketa Absolutua izango da, apirilaren 17an eta 18an, Sestaon.



Eibar Igerixan hirugarren Gipuzkoako Kluben Kopan

Martxoaren 28an eta 29an, Tolosako Usabal kiroldegian jokatu duen Gipuzkoako Kluben Kopan, Eibar Igerixanek hirugarren postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean, lan sendo eta orekatua eginez.

Paula eta Iker Calvok, Ander Izaguirrek, Itsaso Castrillok, Naroa Osak eta Jokin Onekak oso maila ona erakutsi zuten.



Klub Deportiboko mendizaleak Ekialdeko Pirinioetan izan dira Aste Santuan

E.B. Deporrek 15 mendizalek egun gogoangarriak igaro dituzte Ekialdeko Pirinioetan, hilaren 2tik 6ra, “Canigo ospetsuaren magalean”, Antxon Narbaizak esan digunez. Eguraldia lagun, eta kontatu digutenez, giro ederrean ibili dira gora eta behera, Mediterraneo itsasotik ez hain urrun dauden mendietan.

Lehenengo egunean, Herrialde Katalanetako Eus, Arbousolis eta Marqueixenes lotu zituzten 11 km-ko ibilaldian. Hurrengo egunean,

Sardiniá herria eta Roque aterpetxea lotu zituzten, azken zatia elurretan, Villefranchera helduz. 4an, Carançako ‘gorgas’ mendizintzurra zeharkatu ondoren, elurbidea jarraitu zuten El Gendarme inguratu eta irteera lekura itzuliz. 5ean, Tres Stelles tontorrean ospatu zuten Aberri Eguna, gero Mentet mendatera jaitsiz. Azken egunean, goiz itzuli behar zirenez, Vernet les Bains herria bisitatu eta La Pena igo zuten.

Pala txapelketaren seigarren jardunaldia

E.B. Aste Santuko atsedenaldia hartu ondoren, Eibarko Pala Txapelketaren seigarren jardunaldia jokatu da asteburu honetan. Apirilaren 11n eta 12an, pilotakadek berriro beteko dute Astelena frontoia, lehiakortasuna eta giro ona uztartuz.

Zapatu goizean sei partida jokatu dira; eta domekan, berriz, bi saio egongo dira: goizekoan bi neurketa jokatu dira eta arratsaldean beste bi.



ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Gizonetako 2. Maila

Valladolid - EIBAR (astelehena, 20:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

Celta Vigo - EIBAR B (bihar, 16:30)

Gizonetako 2. Maila RFEF

Utebo - EIBAR B (etzi, 18:00)

Gizonetako 3. Maila RFEF

EIBAR C - San Ignacio (bihar, 16:00)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

Antiguoko - EIBAR (etzi, 12:15)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

URKI - Lakua (etzi, 16:30)

FUTBOL-ZALATUA

- Garajes Garcia - L Rueda (bihar, 09:00)
- Baserri - Adahi Etxegi (bihar, 10:30)
- Kalaka Bs. As. - Bergara Pn. (etzi, 09:00)
- Bar Marem - Xania Taberna (etzi, 10:30)
- Atsedena: Malape Taberna

ESKUBALOIA

1. Maila Nazionala (gi)

E. ESKUBALOIA - Beti Onak (bihar, 17:45)

WATERPOLOA

2. Nazionala (gi)

Nou Godella - URBAT (bihar, 17:30)

ERRUGBIA

Erreginaren Zilarrezko Kopa

PRB - EIBAR RT (bihar, 16:00)

PALA

Eibarko Pala Txapelketa (bihar 9:15etik)

ETOR-AGIRREBEÑA / IOSU-GINEA
GALLASTEGI-GALLASTEGI / BIKUÑA
BELAMENDIA

UNDA-APA / ACEMEL-XABIER
BILBAO-LOIDI / BAROJA-BENGOETXEA

Eibarko Pala Txapelketa (etzi 11:00etatik)

REMENTERIA-ASTOBIETA / APA-UNDA
APRAIZ-TXIPIO / URKIA-GISASOLA

Eibarko Pala Txapelketa (etzi 16:30etik)

NARVAIZA-AGUIRRRESAROBÉ / FERREIRO-URAIN
SORIA-LOMBRAÑA / BARRU-ORMAZABAL

Kirol albiste gehiago gure webgunean





Eibar BHIko ikasleak Belgika eta Alemanian izan dira

S.H. Aurten, Eibar BHIko DBH4 eta Batxilergoko 1. mailako ikasleek bi elkartruke programatan parte hartu dute. Batetik, Alemanian, Balingen hirian, eta bestetik, Belgikan, Eupen herri germanofonoan. Urriari eta azaroan, atzerriko ikasleak Eibarrera etorri ziren, eta aste batez herria eta inguruko leku esanguratsuak bisitatu zituzten, besteak beste, Eibarko museoa. Elkartrukeek astebeteko iraupena izan dute bai hemen bai atzerrian, eta ikasleak hango familien etxeetan hartu dituzte, eguneroko bizimodua bertatik bertara ezagutzeko. Hizkuntza ikasteaz gain, beste kultura bat ezagutzeko eta ohiko ingurutik kanpo euren kabuz moldatzeko aukera ere izan dute ikasleek.



“Figuras ocultas” pelikulari buruzko zine-forum saioa

S.H. Pagatxa emakume elkarteak antolatzen duen zine-forum feministaren hurrengo saioa apirilaren 17an (barixakua) izango da, 18:30etik aurrera Portalean (areto nagusian). Theodore Melfik zuzendutako *Figuras ocultas*, 2016ko filma ikusi eta, jarraian, solasaldia hasiko da. Beti bezala, sarrera librea eta doa-koa izango da.



Pakistango errefuxiatuen inguruko argazki-erakusketa

S.H. Andretxeak *Indusen ibaibideak: Himalaiatik Karatxira*. *Pakistan, begirada sozial bat* erakusketaren bisita gidatua eskainiko du apirilaren 20an, astelehena, 18:30ean, euskaraz. Igone Mairezkurrena Fernandezek sortutako erakusketa apirilaren 20tik maiatzaren 15era egongo da ikusgai. Erakusketak Indus ibaiaren ibilbidea hartzen du ardatz, Himalaiatik Arabiako itsasoraino, eta Pakistanen bizi diren pertsonen eguneroko errealitatea erakusten du. Bereziki, aldaketa klimatikoak eta hondamendi naturalek gizartean dituzten ondorioak aztertzen ditu, hala nola pobretzea, indarkeria eta eskubideen galera.



Eibarko Artisten Elkarteak bisita gidatuak antolatu ditu

S.H. Eibarko Artisten Elkartearen eskutik hainbat bisita gidatu eskainiko dira, Portalean ikusgai dagoen erakusketa kolektibo hobeto ezagutu nahi dutenentzat. Artistek eurek emango dituzte azalpenak, dohainik. Euskarazko bisita apirilaren 24an (barixakua) izango da, eta gaztelaniazko bisitak, berriz, apirilaren 16an eta 23an (eguen) egingo dituzte. Bisita guztiak 18:30ean hasiko dira, Portaleko erakusketa aretoan, eta ez da aurretik izenik eman behar.



Emakume arrazializatu begirada feministari buruzko saioa antolatu du Andretxeak

S.H. Andretxeak hitzaldi berezia hartuko du apirilaren 16an (eguna), 18:00etatik 19:30era. Jardunaldiaren helburua emakume migratu eta arrazializatuaren planteamendu feministen inguruko azterketa eta arrazakeriaren aurkako hausnarketa sustatzea da. Hizlaria Jeanne-Rolande Dacogna Minkette izango da, ikertzaile eta hezitzailea, arrazakeriaren aurkako aktibista feminista eta giza eskubideen defendatzaile ezaguna. Emakumeei eta Generoari buruzko Azterlan eta Ikerketa Feministetan doktorea da. Hitzaldia gaztelaniaz izango da eta doakoa eta irekia, parte-hartzaile guztiak gonbidatu dituzte hausnarketa feminista eta gizarte bidezkoago baten alde parte hartzera.



Eguen Zuri lehiaketako lanak ikusteko azken egunak

S.H. Domekan itxiko dute Topalekun ikusgai dagoen XXVIII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketaren erakusketa. Aurtengo edizioan saritu dituzten lanak, lehiaketara aurkeztu diren beste hainbatekin batera ikusi daitezke (egun osoan, tabernako atetik sartuta).



Usartza Txistulari Taldearen kontzertua eta kalejira domekan

S.H. Usartza Txistulari Taldeko kideek kontzertua emango dute domekan (apirilak 12), 12:45 aldera (Errepublikaren urteurreunaren ospakizunaren ondoren), Udaletxeko arkupeetan. Egitaraua hau izango da: *Jerman* (fandangoa, anonimoa), *Murru* (arin arina, J.I. Ansorena), *Hasierakoa* (biribilketa, I. Ansorena), *Hiru euskal doinu* (E. Mokoroa), *Lislorea* (polka, P. Perez Chovi), *Arkupeetan* (Alborada, J. I. Ansorena), *Bi austriar doinu* (herrikoia), *El molinero de Subiza* (Mold. E. Aranburu) eta *Barrencalle* (L. Aranburu Martinez de San Vicente). Adierazi dutenez, "aurretik, 10:30ean, kalejiran irtengo gara. Urkitik ibiltzeko asmoa daukagu, baina eguraldiaren arabera mugituko gara".

Datorren astean hasiko dira larrain dantza errepasatzen

S.H. Eibarko Euskal Jaia gerturatzen ari dela eta, urtero bezala larrain dantzaren errepasoa egingo dute astero Arrateko Andra Mari ikastetxean. Arrate Kultur Elkarteak antolatu-



tako saioak datorren astean, apirilaren 15ean hasiko dira eta, hortik aurrera, eguazteneko egingo dituzte, maiatzaren 27ra arte. Arrate Kultur Elkarteako bazkideentzat dohainik izango dira, eta besteek 5 euro ordaindu beharko dute. Izena emateko 638 284 912 telefonora deitu daiteke edo, bestela, arratekultu@gmail.com helbidera mezua idatzi.

ERRAZA

	5	8		6	4			
6		9						4
		2	3	7				6 8
	8	7						5
		3	8			7		
5			4		7			2
8	7			4	6			
			2	5	3	8		
	2			8				4

SUDOKUA

6	9	1	7	2	5	8	3	4
7	8	3	5	4	6	1	2	9
5	3	2	4	6	7	8	1	9
2	4	8	6	9	3	5	7	1
3	8	9	5	7	1	6	2	4
6	5	4	2	3	7	8	9	1
8	9	5	6	7	1	2	3	4
7	1	6	8	5	2	4	3	7
2	3	4	9	8	1	7	5	6

1	3	5	6	7	9	2	4	8
8	7	2	4	1	3	8	5	7
9	6	4	1	2	8	3	5	7
6	7	2	8	3	5	1	4	9
4	1	3	5	6	7	8	2	9
5	2	8	9	1	4	7	3	6
3	8	9	7	4	2	1	6	5
2	4	1	8	5	6	9	7	3
7	5	6	3	9	1	4	8	2

ZAILA

	5			1				
				6		7		
3	9		4			6	5	
	8	9	1	4				
			6	7	8	2	9	
	9	7						4
	4	1						
	7					6	9	1
	3	5				2		

TOPATU ALBOAN DAUDEN 12 OBJETUAK



- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.
- 11.
- 12.

Apirilak 10 - Apirilak 15

DOMEKA 12

MUSIKA

12:45 Usartza Txistulari Taldearen kontzertua (eguraldiaren arabera 10:30ean kalejira egingo dute, Urkitik). Untzaga (udaletxe arkupeak).

COLISEO KLAZINEMA

19:30 "Uno de los nuestros" (Martin Scorsese, 1990). 5,5 euro. Coliseo.



ASTELEHENA 13

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkarte.

MARTITZENA 14

ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

10:30 Eibar Memoria Demokratikoaren Leku gisa aitortzeko plaka udal-txean ipintzeko ekitaldi instituzionala. Untzaga plaza. **19:00** "Avances sociales de la II República y el papel de las mujeres" mahai-ingurua, Cristina Almeida, Manuela Carmena eta Paquita Sauquilloren parte-hartzearekin. Moderatzailea: Irene Hernando. Doan. Coliseo.

BERRIKETAN IKASI

10:30/12:00 Solasaldia: "La inutilidad de lo inutil". Gaztelaniaz. Sarrera librea. Antolatzailea: Ikasten. Portalea.

HERRITU

18:30/19:30 Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahai. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

EGUAZTENA 15

ATE-IREKIAK

17:00/18:30 Ate-irekien jardunaldia, Deparkel Debabarrena Parkinson Elkarteak antolatuta, elkar-tearen lana ezagutu nahi dutenentzat. Deparkel-en lokalean (Ardantza, 1. behe).

ASANBLADA

17:30 Etxebizitza-alokairuari buruzko zalantzak argitzeko. Sarrera librea. LAB sindikatuaren egoitza (Untzaga plaza, 7).



AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-er eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

19:00 "La educación y la cultura en la II República: Proyecto Escuela de Antonio Benaiges" hitzaldia, Jesus Gutierrez historialariak gidatuta. Doan. Portalea.



EUSKAL JAIA

19:00/21:00 Larrain-dantza errepassoa. 5 euro (Arrate Kultur Elkarteak bazkideek dohanik). Arrateko Andra Mari ikastetxea.



EGUENA 16

HITZALDIA

10:00/12:00 "Ura eta lurraldea, uraren aurpegiak", M. Perelloren eskutik. Euskaraz. Sarrera librea. Antolatzailea: Ikasten. Portalea.

HITZALDIA

18:00 "Emakume arrazializatuaren begirada feminista eta arrazakeriaren aurkakoa", Jeane-Rolande Dacougnak eskutik. Gaztelaniaz. Doan. Andretxea.

BISITA GIDATUA

18:30 Eibarko Artisten Elkartearen erakusketara bisita, gaztelaniaz. Doan. Portalea (erakusketa aretoa).

ERREPUBLIKAREN 95. URTEURRENA

19:00 "Ahotsa(k)" ikuskizuna. Zuzendaritza eta dramaturgia: Irene Hernando. Koreografia: Kaxa, Kezka eta Os Galaicos. Musika: Quico Puges. Doan. Coliseo.

LIBURU-AURKEZPENA

19:00 Miguel Arroitajaurerri Errastiren "Transiciones" liburuaren aurkezpena. Sarrera librea. Portalea (areto nagusia).



ERAKUSKETAK

Apirilaren 12ra arte
XXVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketako lanak. Topaleku.

Apirilaren 26ra arte
Institutuko ikasleen erakusketa. Portalea.

Apirilaren 28ra arte
Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa. Portalea.

Maiatzaren 17ra arte
"El Trust Eibarres S.L." erakusketa, enpresaren mendeurrena ospatzeko. Armagintzaren Museoa.

ZINEA COLISEO



"Laponia"
KOMEDIA. DRAMA

2026/Espainia/89'
Zuzendaria: Natalia Verbeke,
Julián López, Ángela Cervantes,
Vebjørn Enger
Familia. Drama

1 ARETOA

- **11n:** 17:00
- **12an:** 17:00, 20:00
- **13an:** 19:30

ANTZOKIA

- **11n:** 19:45, 22:30



"La Grazia"
KOMEDIA. DRAMA

2025/Italia/133'
Zuzendaria: Paolo Sorrentino
Aktoreak: Toni Servillo, Anna
Ferzetti, Orlando Cinque
Politika

1 ARETOA

- **11n:** 19:30, 22:30



"Calle Málaga"
DRAMA.

2025/Maroko/116'
Zuzendaria: Maryam Touzani
Aktoreak: Carmen Maura, Marta
Etura, Ahmed Boulane
Zahartzaroa/Heldutasuna.
Amatasuna

2 ARETOA

- **11n:** 17:00, 19:45, 22:30
- **12an:** 17:00, 20:00
- **13an:** 19:30



"Gangster txikia"
KOMEDIA. ABENTURA

2025/Herbehereak/105'
Zuzendaria: Arne Toonen
Aktoreak: Thor Braun, Henry van
Loo, René van 't Hof:
Familia zinema

ANTZOKIA

- **11n:** 17:00
- **12an:** 17:00

 FUNEUSKADI Grupo Asistira	 FUNERARIA MUGICA Funeuskadi
 TANATORIO EIBAR	 TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	



Fernando Valenciano Yebra

6. URTEURRENA
2020/04/08

"Zu joan zinen, baina GURE BIHOTZETAN BIZIRIK ZAUDE"



- ETXEKOAK -

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **LIBE!**
Gaur, apirilak 10,
11 urte betetzen
dozuz-eta. Musu
haundi bat famelixa
guztiaren partez.



Zorionak **MAIALEN!**
Hillaren 2xan urtiak
bete zenduaz-en-eta.
Saturnoraino maite
zaittugu. Patxo po-
toloa etxekuen eta,
batez be, Mateo eta
Vegaren partez.



Zorionak **AIUR!**
Hillaren 11n 7 urte!
Musu eta besarkada
haundi bat, asko
maite zaittugu!



Zorionak **ELENE!**
Hillaren 6xan 3 urte
bete zenduaz-en.
Patxo pill bat fame-
lixaren eta, batez
be, Jonen partez.



Zorionak **JULEN!**
9 urte bete dozuz-
eta. Musu haundi
bat etxekuen eta,
batez be, Anderren
partez. Asko maite
zaittugu.



Zorionak **LIZAR!**
Hillaren 2xan zortzi
urte bete dozuz-eta.
Zorionak eta musu
haundi bat etxe-
kuen partez. Asko
maite zaittugu!





Markos Barrena Ugartetxea

2026/04/02

**Beti egongo zara
gure gogoan.
Maite zaitugu.**

- ETXEKOAK -





Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Emakumeak pisu edo logela bat alokatuko luke. 742099074.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Garajea salgai Urkizu Pasea- lekuko 9 zenbakian. 25 m². 659584892.
- Trasteroa salgai. 5 m². Arratebi- den. 666769414.

3.2. Errentan

- Egiguren-tarrenen garaje itxia alokagai. 646964712.

3.3. Konpartitzeko

- Laster Eibarren zabalduko den tailer/coworking bat parte- katzeko kide bila dabil artista plastikoa. Mota guztietako profilak ongi etorriak dira. 658872397.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da per- sona nagusiak zaintzeko ospi- talean, asteburuetan, orduka edo externa. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da umeak edota nagusiak zaintze- ko eta garbiketa lanetarako. 662625534.
- Mutil gaztea eskaintzen da tabernari modulan lan egiteko eta baita nagusien zainketa eta garbiketa lanak egiteko ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko, orduka edota interna bezala, baita garbiketa lanetarako ere. Ziurtagiri so- zio-sanitarioarekin. 667060292.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko, orduka edota interna bezala, baita astebu-

ruetan ere. 643860541.

- Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko. Ziurtagiri so- zio-sanitarioarekin. 641756213.
- Emakumea eskaintzen da os- talaritzan, garbiketa lanetan edota nagusiak zaintzen lan egiteko. Ziurtagiri sozio-sanita- rioarekin. 641322473.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. 642450647.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna be- zala, baita egunez edota gauez ere. Ziurtagiri sozio-sanitarioa- rekin. 632292662.
- Emakume arduratsua eskain- tzen da nagusiak zaintzeko, orduka. Esperientziarekin eta ziurtagiri sozio-sanitarioarekin. 602800266.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak edota umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako... Titulua- rekin. 633101852.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Ziur- tagiri sozio-sanitarioarekin. 632624579.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Ziur- tagiri sozio-sanitarioarekin. 605597134.
- Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko, interna beza- la edota orduka. Baita garbika- ta lanetarako ere. 614943897.
- Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mu- gikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.

4.2. Langile bila

- Gastesi hortz-klinikan odonto- logo bila gabilta. Interesatuak, bidali kurrikuluma mesedez: clinica@gastesidental.es.
- Estetizista eta fisioterapeuta behar dira Eibarko ileapain- degi batean. Lan giro ona. 943208125.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko kla- seak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.2. Eman

- Ohe artikulatua salgai prezio onean. 618022434.

GREMIOEN GIDA

ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ELEKTRIZITATEA



THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
24 orduko
urgentziak
610 532 922 www.theleceer.com

KRISTALAK



ACHA Kristaldegia
J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com eta faxa:
943 203 903

AROTZAK



ulmar
S.L.
metalczko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK



Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

PINTURAK



IÑAKI
pinturak eta lurrak
Tel. 647 902 208
Bidebarrieta, 21 - behea

GARBIKETAK



Garbihome

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal
eta komunitateetarako garbiketa
zerbitzuak eskaintzen ditugu

☎ 642 456 472
✉ info@garbihome.com
🌐 garbihome.com

*errenta
aitorpena?*

euskaraz!

zelan?

- autolikidazioan **euskaraz** egin nahi duzula esan
- mekanizatuan ordua hartzerakoan, eta aitortpena egiterakoan, **euskaraz** egin nahi duzula esan
- internet bidez errenta programaren **euskaraz**ko bertsioa deskargatu